



Egilea / El autor

Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944). Soziologoa eta idazlea. 60ko urteetatik aurrera euskal herabide gehienetan hartu du parte. 1967an LUR argitaletxea sortu zuen beste idazle batzuekin batera, eta 70eko urteetan Oh Euzkadi Literatur aldizkaria. 1992an IV. Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi zuen. 1971n "Kapitaina" ipuin aipagarria argitaratu zuen *Hegatsez* liburuan. Nobelagile handia da egilea: *Egunero hasten delako* (1969), *Ehun metro* (1976), *Ene Jesus* (1982) Kritika Saria, *Hamaika pauso* (1995) Kritika Saria eta *Bihotz bi* (1996) Kritika Saria. *Aberriaren alde (aberriaren kontra)* saio aipagarria 1999koa da. *Gorde nazazu lurpean* (2000) Kritika Saria eta Euskadi Literatura Saria 2001 (jatorrian *Gorde nazazu lurpean* liburukoak izanik, argitarapen berri bat izan zuten: *Gudari zaharraren gerra galdua* [2000], *Rossetti-ren obsesioa* [2001] eta *Bi bihotz, hilobi bat* [2001]), *Kandinskyren tradizioa* (2003) eta *Martutene* (2012) dira egilearen azken liburuak.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Lili eta biok**

Egilea / Autor: **Ramon Saizarbitoria**

Saila / Colección: Narratiba, 94

ISBN / EAN: 978-84-9746-941-8

Salneurria / Precio: 24 € (BEZ barne – IVA incluido)

Orri kopurua / N° páginas: 576

Formatua / Formato: 15 x 22 cm



Lana / La obra

Ondarretako uretatik atera eta toallarekin lehortzen ari den bainulariari begira dago gizona. Gaixo egon arren, ez du Faustino Iturbek, psikologo ohi eta idazleak, erakarmenik galdu emakumeentzat. Sexualitate baldar eta grinatsutik aske, lasaiago sentitzen dira emakumeak bere ondoan, afektuaren eta aitormen atseginarenean. Gauzak horrela, Ana psikologoaren maitasun-jazarpen tematiak asko du umoretik, are komikotasunetik ere.

Anaren bidez ezagutzen du Faustino Iturbek Lili, hamabost urteko neska bizkorra, baina nerabezaroaren krisialdian bete-betea sartua. Kalez kale garatutako solasean, gurasokeriarik gabe, eta neskaren galdera, zantzua eta jakin-minaren aurrean ulerbera agertzen delako idazlea, Otzeta eta Gerra Zibilaren garaiko sekretu baten jakitun egingo du Lilik. Juan Aramendia falangista nafarraren sinadura erakusten dio Lilik idazleari, aitoren poesia-liburu batean. Handik aurrera nobelaren tramak abiadura bizia hartzen du, isilpeko istorio traumatikoak ere kanporatuz, baina batik bat, isil-gordean iraun duen maitasun istorio erromantiko triste eta ezinduaren mataza harilkatua. Donostiatik Otzetara eta Otzetatik Donostiara, gaur egundik Gerra Zibileko gertalekuetara oihartzun eginez, eta Intxortako parajeetatik egungo bizitzara. Batetik bestera, leku eta denborearen jautsian garatuko da nobela distirante hau bikain amaitzeraino.

Idazle handi batek dakiena baino gehiago esaten du bere liburuetan. Eta Ramon Saizarbitoriak asko daki, baina gutxitan garatu du honako honetan, Lilirekin batera, eta bizitzari begira, erakusten duen samurtasuna. Belaunaldi zaharragoak ondorengoari transmititu nahi liokeen ondare egiazkoena.